

EUSKARA (A EREDUA)

EUSKARA (A EREDUA)	1
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2
1 GAITASUN BERARIAZKOA	2
1 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	2
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	3
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	3
2 GAITASUN BERARIAZKOA	4
2 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	4
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	4
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
3 GAITASUN BERARIAZKOA	5
3 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	5
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	6
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	6
4 GAITASUN BERARIAZKOA	6
4 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	6
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	7
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	7
5 GAITASUN BERARIAZKOA	7
5 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	7
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	8
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	8
6 GAITASUN BERARIAZKOA	8
6 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	8
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	9
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	9
2. OINARRIZKO JAKINTZAK	9
A. Komunikazioa.	9
B. Eleaniztasuna.	11
C. Kulturartekotasuna.	12

EUSKARA (A EREDUA)

Gaur egungo gizarteek bilakaera bizkorra dute, eta konexio ugari daude gizarteen artean. Horren ondorioz, pertsonen zenbait konpetentzia garatu behar dituzte egungo munduarekin konprometitzen diren herritar independente eta aktiboak izateko, aintzat hartuta mundu hau gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa dela. Kultura demokratikorako erreferentzia esparruak dioen bezala, egungo gizarteek askotariko kulturak dituztenez prozesu demokratikoei kulturarteko elkarriketa eskatzen dute. Nafarroan, esaterako, hizkuntza ofizialak bi dira: gaztelania eta euskara. Beraz, euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzea funtsezkoa da kultura demokratiko hori garatzeko. Europako Hezkuntzaren Esparru baten ideian, berriz, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeak mugikortasuna errazten du eta, horretaz gainera, laguntzen du beste kultura batzuk –honako honetan, gurea den beste bat– ezagutzen eta hala beren ikuspegia zabaltzen.

Euskara ikasgaiak Batxilergoko funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzen du, eta zuzeneko eragina du eleaniztasunerako konpetentzia lortzen. Horretarako, hizkuntza bat baino gehiago erabili behar dira, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorren. Konpetentzia eleaniztunak ez du bakarrik alderdi komunikatiboa biltzen, baita alderdi historikoak eta kulturartekoak ere. Izan ere, horiek ikasleak daramatzate aniztasun linguistikoa eta kulturala ezagutu, kritikoki balioetsi eta errespetatzera, eta laguntzen diete gizarte demokratikoarekin konprometituta dauden herritar independente eta aktiboak izaten. Ikuspegi horrekin bat etorritik, Batxilergoan, Euskara ikasgaiaren helburu nagusia da euskaraz komunikatzeko konpetentzia eskuratzea, ikasleek hizkuntza hori eraginkortasunez, jartokortasunez eta zuzen ulertu, mintzatu eta hartan interaktuatu ahal dezaten, eta haien kulturarteko kontzientzia aberastu eta hedatu dezaten.

Euskararen curriculumak bere ardatzean eleaniztasunaren bi alderdi ditu: komunikazio alderdia eta kulturarteko alderdia. Ikasgaiaren konpetentzia espezifikoak lotuta daude etapako funtsezko konpetentzien deskriptore operatiboekin eta XXI. mendeko erronkekin. Berariazko konpetentzia horiek ikasleei aukera ematen diete euskaraz komunikatzeko eta norberaren hizkuntza erreperitorioa zabaltzeko, eta norberaren esperientziak aprobetxatzen dira komunikazioa hobetzeko, bai familia hizkuntzetan, bai euskaraz. Era berean, toki garrantzitsua hartzen dute norberaren hizkuntza eskakizunen errespetuak, aniztasunari egokitzeak eta kulturarteko elkarriketaren bidez kultura partekatuan eta jasangarritasunarekin eta balio demokratikoekin konpromisoa hartu duten herritarren garapenean parte hartzeko interesak.

Ikasgai honek, gainera, ikasleei aukera ematen die ingurune digitaletan hobeki mugitzeko eta euskaraz gauzatutako kulturetara iristeko, bai prestakuntza eta ikaskuntzarako bide bezala, bai informazioa eskuratu eta harekin gozatzeko. Ildo horretatik, tresna digitalek aukera asko ematen dituzte, eta horiek bete-betean aprobetxatu litezke euskararen eta euskal kulturaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa osoki sendotzeko. Hori dela eta, pentsamendu kritikorearen garapena, herritartasun digital aktiboa, zibikoa eta hausnartua gauzatzea eta teknologiaren erabilera segurua, etikoa, jasangarria eta arduratsua egitea ikaskuntza elementu oso garrantzitsuak dira ikasgai honetan.

Batxilergoko Euskara ikasgaiaren konpetentzia espezifikoek oinarritzko irakaskuntza amaitzean eskuratutako konpetentzietan sakontzea eta zabaltzea dakarte, horiek izanen baitira etapa berri honetarako oinarria, eta ikasleen erreperitorioak eta esperientziak oinarri hartuta garatzeko dira. Hartara, horrek berekin dakar ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzarako komunikazio jardura eta estrategiak sakonago garatzea, kontuan izanik etapa honetan helburua dela aniztasunari erantzutea, elkarlanean aritzea eta elkarri aditzeko eta ulertzeko arazoak konpontzea. Aurrerago joateak berekin dakar, halaber, hausnarketa kritikoragoa eta sistematoragoa egitea hizkuntzen funtzionamenduaren eta ikasleen banakako erreperitorioko hizkuntzen arteko harremanen gainean. Ikasgai honen konpetentzia espezifikoetan ere sartuta dago kulturarteko egoerak kudeatzeko beharrezko jakintzetan gehiago sakontzea, eta aniztasun linguistikoa, artistikoa eta kulturala kritikoki balioestea eta hari egokitzea, elkar ulertzea sustatzeko eta kultura partekatuen garapena laguntzeko xedez.

Ikasgaia ebaluatzeko irizpideek bermatzen dute ikasleek konpetentzia espezifikoak lortuko dituztela, eta, beraz, konpetentzia horiei lotuta agertzen dira. Konpetentziei dagokienez, irizpide horiek adierazten dute ikasleek zer prozesu edo gaitasun eskuratu behar duten eta zein diren prozesu edo gaitasun hori aplikatu eta erabiltzeko testuingurua eta modua. Ebaluazio irizpideak mailakatu dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan oinarrituta, baina Batxilergoko ikasleen heldutasunera eta garapenera egokituta.

Bestalde, oinarritzko jakintzek batera biltzen dituzte ikasgaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko behar diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea), eta laguntzen dute ikaskuntzak irizpideen bidez ebaluatzen. Hiru bloketan egituratzen dira. «Komunikazioa» blokean jakintza hauek guztiak daude sartuta: ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako hizkuntza jarduerak garatzeko mobilizatu behar diren jakintzak, baita informazio iturri horiek bilatzearekin, hautatzearekin eta alderatzearekin lotutakoak, eta iturri horien kudeaketa ere. «Eleaniztasuna» blokean, berriz, beste jakintza hauek daude sartuta: hizkuntzen funtzionamenduari buruz hausnartzeko gaitasunarekin lotutako jakintzak; horren helburua da euskararen ikaskuntza bultzatzea eta ikasleen hizkuntza errepertorioa osatzen duten hizkuntzak hobetzea. Azkenik, «Kulturartekotasuna» blokeko jakintzak dira euskararen bidez gauzatzen diren kulturari buruzkoak; jakintza horiek ikusarazten dute garrantzitsuak direla herrien artean komunikatzeko eta ulertzeko, beste kultura eta hizkuntza batzuetara hurbiltzeko eta norberak bere burua aberasteko eta gizartean parte hartzeko tresna modura.

Curriculumeko elementuen ikusmoldea, mailakatzea eta definizioa egin dira Europako Kontseiluak EEEBn ezartzen dituen jardueretatik eta konpetentzietatik abiatuta. Tresna hori ezinbestekoa da ikasleek jardueretan lortzen dituzten konpetentzia-mailak zehazteko, eta, gainera, ikaskuntza prozesua bultzatzen du. Prozesu horrek dinamikoa eta jarraitua behar du izan, malgua eta irekia, eta ikasleen inguruabar, premia eta interesetara egokitua. Espero da ikasleak gai izatea beren oinarritzko jakintza guztiak martxan jartzeko, zenbait esparrutako komunikazio egoeretan (esparru pertsonala, soziala, hezkuntzako eta profesionala) hainbat testutatik abiatuta. Testu horien gaiak izanen dira egunerokoak, ikasleentzat garrantzitsuak direnak, edo interes publikokoak izanik beren esperientziatik hurbil daudenak. Idazki horien barruan egonen dira Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta XXI. mendeko erronkekin lotutako hainbat alderdi. EEEBk ekarri duen ikuspegia ekintzari dago begira eta asko laguntzen du metodologia eklektikoak diseinatzen. Ildo horretatik, curriculum honen konpetentzia-izaerak irakasleak gonbidatzen ditu diziplinarteko eta testuinguruan kokatutako ataza esanguratsu eta garrantzitsuak sortzera, eta ikaskuntzako egoerak garatzera, non ikasleak eragile sozial autonomoak izanen diren eta beren ikaskuntza prozesuaren ardura hartuko duten. Horrek berekin dakar ikasleen errepertorioak, interesak eta emozioak aintzat hartzea, baita beren inguruabar bereziak ere, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren oinarriak ezartzeko.

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1 GAITASUN BERARIAZKOA

Hizkuntza estandarrean idatzitako testuen ideia nagusiak eta oinarritzko argudio ildoak ulertu eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatzea eta esanahiak inferitzeko eta egiaztatzeko estrategiak erabiltzea, planteatutako komunikazio-beharrei erantzuteko.

1 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Ulermenak berekin dakar informazioa jaso eta prozesatzea. Batxilergoan, ulermena komunikazio trebetasun bat da, zeina garatu behar baita ikasleentzako pertsonalki garrantzitsuak diren edo interes publikokoak diren gaien gaineko testuetatik, idatzizko testuetatik edo testu

multimodaletatik abiatuta; testu horiek hizkuntza estandarrekoak izanen dira. Maila honetan ulermenak berekin dakar testuak ulertu eta interpretatzea, eta ideia nagusirik eta argudio ildorik adierazgarrienak ateratzea, hala nola testuen edukia, asmoa, diskurtso bereizgarriak eta ñabardura batzuk eta hizkuntzaren ironia eta erabilera estetikoa kritikoki balioestea. Horretarako, beharrezkoa da estrategiarik egokienak aktibatzea, testuetako asmoa eta iritzi inplizituak zein esplizituak bereizteko. Ikasleentzako ulermen estrategia erabilgarrienen artean daude esanahien inferentzia eta egiaztapena, hitzezkoak ez diren elementuen interpretazioa eta testu horien azpian dauden asmoei eta iritziei buruzko hipotesiak formulatzea, bai eta beren hizkuntza errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak transferitzea eta integratzea ere. Hor sartzen da zenbait irudikapen mota interpretatzea (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak...); baita testuinguruko informazioa (hizkuntzaz kanpo elementuak) eta informazio kotestuala (hizkuntza elementuak) interpretatzea ere, horiek laguntzen baitute testuaren asmo eta zentzuari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzen eta, beharko balitz, beste hipotesi batzuk eraikitzen. Estrategia horiez landa, ulermenerako oso metodo baliagarria da euskarri analogiko eta digitaletan dauden iturri fidagarriak bilatzea; izan ere, horri esker informazioa alderatu, baliozkotu eta sendotu daiteke, baita ondorio egokiak lortu ere testuetatik abiatuta. Ulermen eta interpretazio prozesuek komunikazio testuinguru dialogikoak behar dituzte, hain zuzen ere aurreiritzi eta estereotipoen identifikazio kritikoa eta desberdintasun eta antzekotasun etniko-kulturekiko benetako interesa sustatuko dituztenak.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, ELK1, ELK2, STEM1, KD1, KPSII4.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
1.1. Testu luze samarreko ideia nagusiak, informazio garrantzitsua eta inplikazio orokorrak atera eta aztertzea; testu horiek ongi antolatuta egonen dira eta konplexuak izanen dira, gehiago edo gutxiago, eta ahozkoak, idatzizkoak edo multimodalak izanen dira. Halaber, ikasleendako garrantzitsuak diren edo interes publikokoak diren gaiei buruzkoak izanen dira, zehatzak zein abstraktuak, modu argian adieraziak eta hizkuntza estandarrean idatziak, hainbat euskarriren bidez, baita inguru zaratatsu samarretan ere.	1.1. Testu luze samarretako ideia nagusiak, informazio garrantzitsua eta inplikazio orokorrak atera eta aztertzea; testu horiek ongi antolatuta egonen dira eta konplexuak izanen dira, eta ahozkoak, idatzizkoak eta multimodalak izanen dira, erregistro formalekoak zein informalekoak. Halaber, ikasleendako garrantzitsuak diren edo interes publikokoak diren gaiei buruzkoak izanen dira, zehatzak zein abstraktuak, modu argian adieraziak eta hizkuntza estandarrean edo maiz erabilitako barietateetan idatziak, hainbat euskarriren bidez, baita inguru zaratatsu samarretan ere.
1.2. Testu luze eta konplexu samarren edukia, asmoa eta diskurtso ezaugarriak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, arreta berezia jarritz testu akademikoetan eta hedabideetakoetan, bai eta fikziozko testuetan ere, gai orokorrei edo espezifikoagoei, garrantzi pertsonalekoei edo interes publikokoei buruz.	1.2. Testu luze eta konplexu samarren edukia, asmoa, diskurtso ezaugarriak eta ñabardura batzuk, hala nola hizkuntzaren ironia edo erabilera estetikoa, modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, arreta berezia jarritz testu akademikoetan eta hedabideetakoetan, bai eta fikziozko testuetan ere, garrantzi pertsonala edo interes publikoa duten askotariko gaiei buruz.
1.3. Informazio globala eta berariazkoa ulertzeko estrategia eta ezagutza egokiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea; testuen asmo eta iritzi inplizituak eta esplizituak (beti argi adierazitakoak badira) bereiztea; esanahiak inferitzea eta ahozkoak ez diren elementuak interpretatzea eta, orobat, informazioa bilatzea, hautatzea eta alderatzea.	1.3. Komunikazio-egoera bakoitzari hobekien egokitzen zaizkion estrategiak eta ezagutzak hautatu, antolatu eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik adierazgarrienak ulertzeko eta testuetako asmoa eta iritzi inplizituak eta esplizituak bereizteko; esanahiak inferitzeko eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzeko; eta, orobat, egiazko informazioa

bilatu, hautatu eta alderatzeko.

2 GAITASUN BERARIAZKOA

Testu jatorrizkoak, gero eta luzeagoak, argiak, ongi antolatuak eta xehakatuak sortzea, plangintza, sintesia, konpentsazioa edo autozuzenketa moduko estrategiak erabiliz, ideiak eta argudioak modu sortzailean, egokian eta koherentean adierazteko, komunikazio asmo zehatzen arabera.

2 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Ekoizpenak ahozko adierazpena nahiz idatzizkoa eta multimodala hartzen ditu bere barnean. Etapa honetan, testuak sormena, koherentzia eta egokitasuna erabiliz idatzi eta azaldu behar dira, eta testu horiek ikasleentzat garrantzi pertsonala duten edo interes publikokoak diren gaiei buruzkoak izanen dira. Etapa honetan haxe da ekoizpena, zernahi formatu eta euskarritan: luzera ertaineko aurkezpen formal bat egitea, zeinetan ideien euskarri izanen baitira berezko adibideak eta xehetasunak, azalpen argi eta xehakatu bat egitea edo argudiozko testuak idaztea. Testu horiek egitura logikoa izanen dute eta planteatutako perspektibaren aldeko edo kontrako puntuak azalduko dituzte; tresna digitalak eta analogikoak erabiliko dira, eta informazioa Interneten bilatuko da, Internet dokumentazio-iturri xehakatu eta selektibo moduan hartuta. Formatu multimodalean, ekoizpenean hainbat baliabide batera erabiltzen dira esanahia sortzeko (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, etab.), eta gailu digitalak, tresnak eta aplikazioak hautatzen, konfiguratzeko eta erabiltzeko, elkarlanean lan egiteko eta informazioa partekatzeke, sareko ekintzak arduraz kudeatuz.

Testuen ekoizpenarekin lotutako jarduerak eginkizun garrantzitsuak dituzte eremu akademiko eta profesionalean, eta eginkizun horiei lotutako balio sozial eta zibiko zehatza dute. Zernahi euskarritako ekoizpenik formalenetako trebetasuna ikaskuntzaren ondorio da, komunikazioaren konbentzioak eta diskurtso bereizgarriak usuenak erabiltzearen bidez. Horien artean daude linguistikoagoak diren alderdi formalez gainera erabilitako generoari lotutako itxaropen eta konbentzioak ikastea, hizkuntzaren erabilera etikoa, ekoizpen sortzaileko tresnak edo erabilitako euskarriaren ezaugarriak. Etapa honetan ekoizpena

–formala zein informala– hobetzeko estrategien barruan sartzen dira plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa eta atzeraelikadura, hala nola monitorizazioa, baliozkotzea eta konpentsazioa modu autonomoan eta sistematikoan egitea.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, ELK1, ELK2, STEM1, KD1, KD3, KPSII4, KKA3.2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
2.1. Testu argiak, koherenteak, ongi antolatuak eta komunikazio-egoerari egokituak aski jarotasun eta zuzentasunez ahoz adieraztea; erregistro bat baino gehiagokoak izanen dira eta ikasleendako pertsonalki garrantzitsuak direnei edo ezagunak diren interes publikoko gaiei buruzkoak. Xedea da egoerak azaltzea, kontatzea, argudiatzea eta informatzea hainbat euskarritan eta hitzezko	2.1. Hainbat motatako testu argiak, koherenteak, xehakatuak, ongi antolatuak eta solaskideari eta komunikazio egoerari egokituak aski jarotasun, erraztasun eta naturaltasunez ahoz adieraztea; erregistro bat baino gehiagokoak izanen dira eta ikasleentzat pertsonalki garrantzitsuak diren edo interes publikokoak diren gaiei buruzkoak. Xedea da egoerak deskribatzea, kontatzea, argudiatzea eta

baliabideak zein hitzezkoak ez direnak eta, orobat, plangintza, kontrol, konpentsazio eta lankidetzazko estrategiak erabiliz.	informatzea hainbat euskarritan, akats larriak saihestuz eta hitzezko baliabideak zein hitzezkoak ez direnak eta, orobat, plangintza, kontrol, konpentsazio eta lankidetzazko estrategiak erabiliz.
2.2. Nolabaiteko luzera eta zailtasuna duten eta egitura argia duten testu xehakatuak idaztea eta zabaltzea; testu horiek komunikazio egoerara, testu tipologiara eta erabilitako tresna analogiko eta digitalak egokitzea izanen dira, ulermen zailak edo eragozten duten akatsak saihestuz, hainbat iturritako informazioa eta ideiak koherentziaz birformulatuz eta antolatuz eta ikasleek ezagutzen dituzten garrantzi pertsonaleko edo interes publikoko gaien buruzko norberaren iritzia justifikatuz, hizkuntzaren erabilera etiko eginez, jabetza intelektualaren errespetatuz eta plagioa saihestuz.	2.2. Luzera gero eta handiagoko testu xehakatuak idaztea eta zabaltzea; testu horiek ongi egituratuta eta konplexu samarrak izanen dira, komunikazio egoerari, testu tipologiari eta erabilitako tresna analogiko eta digitalak egokituta egon behar dira, akats larriak saihestuz, eta, orobat, iturri askotako informazioa eta ideiak koherentziaz birformulatuz eta antolatuz eta ikasleek ezagutzen dituzten garrantzi pertsonaleko edo interes publikoko gaien buruzko norberaren iritzia justifikatuz, hizkuntzaren erabilera etiko eginez, jabetza intelektualaren errespetatuz eta plagioa saihestuz.
2.3. Plangintza, ekoizpen, berrikuspen eta lankidetzarako ezagutza eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, egitura argiko testuak eta komunikazio asmoak, testuinguru ezaugarriak, alderdi soziokulturalei eta testu tipologiari egokituak sortzeko, baliabide fisiko edo digital egokiak erabiliz atazaren eta solaskide erreal edo potentzialen arabera.	2.3. Plangintza, ekoizpen, berrikuspen eta lankidetzarako ezagutza eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, ongi egituratutako testuak eta komunikazio asmoak, testuinguru ezaugarriak, alderdi soziokulturalei eta testu tipologiari egokituak sortzeko, baliabide fisiko edo digital egokiak erabiliz atazaren eta solaskide erreal edo potentzialen arabera.

3 GAITASUN BERARIAZKOA

Beste pertsona batzuekin aktiboki interaktuatzea, jartasun, zehaztasun eta berezotasun askirekin, lankidetzazko estrategiak erabiliz eta baliabide analogiko eta digitalak erabiliz, kortsiazko arauak errespetatzekoak diren trukeetan komunikazio asmoak erantzunez.

3 kompetentzia espezifikoen deskribapena

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago behar ditu diskurtso bat eraikitzeko. Hizkuntzaren jatorritzat hartzen da, eta pertsonen arteko funtzioak, elkarlanerako funtzioak eta funtzio transakzionalak biltzen ditu. Beste pertsonetako interakzioaren barnean daude hizkuntza kortsia eta etiketa digitala, komunikazioaren hitzezko elementuak eta hitzezkoak ez direnak, eta askotariko genero dialogikotara (ahozkotara, idatzizkotara eta multimodalak) egokitzea. Hizkuntzaren etapa honetan espero da interakzioak ikasleentzat pertsonalki garrantzitsuak diren edo interes publikokoak diren gaiak lantzea.

Kompetentzia espezifikoa hau ezinbestekoa da ikaskuntzan; izan ere, hainbat estrategia hartzen ditu bere barruan, hala nola lankidetzazko estrategiak, hitza utzi eta hartzekoak, baita galdetzeko estrategiak ere, azalpen bat edo baieztapen bat eskatzeko direnak. Interakzioa, gainera, ezinbesteko jardura da lan kooperatiboan, zeinetan atazak eta ardurak modu ekitatiboan, eraginkorrean, errespetuz eta enpatiaz banatzea eta onartzea bideratuta baitago partekatutako helburuak erdiestera. Gainera, hizkuntza kortsia eta etiketa digitaleko arauak eta printzipioak ikasi eta erabiltzeko ikasleak prestatzen du herritar demokratiko, arduratsu, adeitsu, inklusibo, seguru eta aktiboa izan dadin.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, ELK1, ELK2, STEM1, KPSII3.1, HK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
3.1. Asertibotasunez eta modu aktiboan planifikatu, parte hartu eta lankidetzan aritzea, zenbait euskarriren bidez, egoera interaktiboetan, ikaslearentzat garrantzitsuak diren edo interes publikoa duten gaiei buruz; ekimena eta enpatia erakusten dira, baita hizkuntza kortesiarekiko eta etiketa digitalarekiko errespetua ere; orobat, solaskideen premia, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekiko ere; azalpenak, argudioak eta iruzkinak ere egiten dira.	3.1. Modu asertiboan eta aktiboan planifikatu, parte hartu eta lankidetzan aritzea, zenbait euskarriren bidez, egoera interaktiboetan; egoera horien gaiak dira egunerokoak, ikaslearentzat garrantzitsuak direnak, edo interes publikokoak izanik bere esperientziatik hurbil daudenak; ekimena eta enpatia erakusten dira, baita hizkuntza-kortesiarekiko eta etiketa digitalarekiko errespetua ere; orobat, solaskideen premia, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekiko, ideiak eta iritziak emanez zehaztasunez eta sinesteko moduko argudioak emanez.
3.2. Modu malguan eta inguru ezberdinetan estrategia egokiak hautatu, antolatu eta erabiltzea, komunikazioa hasi, mantendu eta bukatzeko, hitza hartu eta emateko, argibideak eta azalpenak eskatu eta adierazteko, eta birformulatzeko, konparatzeko eta alderatzeko, laburpenak egiteko, elkarlanean aritzeko, arazoak eztabaidatu eta ebazteko, eta egoera konprometituak kudeatzeko.	3.2. Eraginkortasunez, berezkotasunez eta askotariko inguruetan estrategia egokiak hautatu, antolatu eta erabiltzea, komunikazioa hasi, mantendu eta bukatzeko, hitza atsegintasunez hartu eta emateko, norberaren ekarpena solaskideenari egokitzeko haien erreakzioak jasoz, argibideak eta azalpenak eskatu eta adierazteko, eta birformulatzeko, konparatzeko eta alderatzeko, laburpenak egiteko, elkarlanean aritzeko, eztabaidatzeko, arazoak ebazteko eta egoera konprometituak kudeatzeko.

4 GAITASUN BERARIAZKOA

Hizkuntzen edo aldaeren edo hizkuntza bereko modalitateen edo erregistroen arteko bitartekotza lana egitea, kontzeptuak eta iritziak azaltzeko edo mezuak errazteko estrategia eta ezagutza eraginkorrak erabiliz, informazioa eraginkortasunez, argiro eta arduraz transmititzeko eta komunikazioa erraztuko duen giro positiboa sortzeko.

4 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Bitartekotza izeneko hizkuntza jardueran mezuen edo testuen ulermena azaldu eta erraztu behar da birformulazioa eta beste estrategia batzuetatik abiatutik, ahoz zein idatziz. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute zubiak sortuz eta mezuak modu dialogikoan eraikitzen edo adierazten lagunduz, ez soilik hizkuntza desberdinen artean, baita hizkuntza beraren barneko modalitate edo erregistro desberdinen artean ere, lan kooperatibo batetik eta besteen iritziak eta jarrerak argitzeko egiten duen lanetik abiatuta. Batxilergoan bitartekotzaren ardatz nagusia hau da: hizkuntza erabiltzea komunikazio testuingurutik sortzen diren erronkak konpontzeko tresna gisa, komunikaziorako eta ikaskuntzarako gune eta baldintza egokiak sortuz; besteen parte-hartzea sustatuz esanahi berriak eraiki eta ulertzeko; eta informazio berria egokiro, arduraz eta modu eraikitzailean helaraziz. Horretarako, bitarteko konbentzionalak eta aplikazio edo plataforma birtualak erabili ahal dira, edukiak itzuli, aztertu, interpretatu eta partekatzeko, eta etapa honetan eduki horiek

izanen dira ikasleentzat pertsonalki garrantzitsuak direnak edo interes publikokoak direnak.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoa garatzen laguntzen du, ikasleek beren erreperitorioko trebetasun eta estrategiarik egokienak aukeratzen dituztelako komunikazio eraginkorra lortzeko, baina baita norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazteko ere, informazioa trukatzeko lankidetzak inguruneetan. Era berean, eskura dauden baliabideak ezagutzea eta enpatia nahiz beste pertsonen motibazioa sustatzea dakar, solaskideen motibazio, ideia eta inguruabar pertsonalak ulertu eta errespetatuz, eta norberaren motibazioekin harmonizatuz. Horregatik, ikasleek enpatia, errespetua, espiritu kritikoa eta zentzu etikoa erakustea espero da, horiek bitartekotza egokia egiteko funtsezko elementuak baitira maila honetan.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, ELK1, ELK2, ELK3, STEM1, KPSII3.1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazioak interpretatzea eta azaltzea, aniztasuna zaindu behar den egoeretan, errespetua eta enpatia erakutsiz solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko, aldaerekiko edo erregistroekiko, eta parte hartuz maiz gertatzen diren elkar-ulertze eta adimen arazoak konpontzen, horretarako baliabide eta euskarri desberdinak erabilia.	4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazioak interpretatzea eta azaltzea, aniztasuna zaindu behar den egoeretan, errespetua eta estimua erakutsiz solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko, aldaerekiko edo erregistroekiko, eta parte hartuz elkar-ulertze eta adimen arazoak konpontzen, horretarako baliabide eta euskarri desberdinak erabilia.
4.2. Estrategiak aplikatzea zubiak sortzen laguntzeko, komunikazioa errazteko eta testu, kontzeptu eta mezuak azaldu eta sinplifikatzeko, baliabide edo euskarri fisikoak edo digitalak erabiliz, atazaren eta solaskideen alde aurreko ezagutzaren arabera; estrategia horiek egokituta daude solaskideen komunikazio asmoetara, testuinguruaren ezaugarrietara, alderdi soziokulturaletara eta testu tipologiara.	4.2. Estrategiak aplikatzea zubiak sortzen laguntzeko, komunikazioa errazteko eta testu, kontzeptu eta mezuak azaldu eta sinplifikatzeko, baliabide edo euskarri fisikoak edo digitalak erabiliz, atazaren, solaskideen interesen eta ideien eta alde aurreko ezagutzaren arabera; estrategia horiek komunikazio asmoetara, testuinguruaren ezaugarrietara, alderdi soziokulturaletara eta testu tipologiara.

5 GAITASUN BERARIAZKOA

Norberaren hizkuntza erreperitorioak zabaltzea eta erabiltzea hizkuntzetan eta aldaeretan, erreperitorio horien funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez, eta norberaren estrategiak eta ezagutzak partekatuz, komunikazio premiei hobeki erantzuteko.

5 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Hizkuntza erreperitorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko hausnarketa lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua hau da: ikasleek beren hizkuntzekin izandako esperientziek oinarri gisa balio dute beste hizkuntza batzuk sakonago eta hobeto ikasteko, eta ikasleei laguntzen diete hizkuntza erreperitorioa eta kulturaren gaineko jakin-mina eta sentsibilizazioa garatu eta aberasten. Batxilergoan, nahitaezkoa da ikasleek hizkuntzen funtzionamenduaren gaineko hausnarketa egitea eta norberaren erreperitorioak osatzen dituztenak sistematikoki erkatzea, antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertuz, hizkuntza horietan dituzten ezagutzak eta estrategiak zabaltzeko. Horrela, hizkuntzak errazago ikasten dira eta

komunikaziorako konpetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko hausnarketa kritiko eta sistematikoak berekin dakar ikasleek hizkuntzen arteko harremanak ulertzea, eta, gainera, ikasle bakoitzari laguntzen dio hizkuntzen eta komunikazioaren alorrean dituen indarrak eta gabeziak identifikatzen; horrela bakoitza bere ezagutza eta estrategiez jabetzen da eta horiek erabiltzen ditu. Ildo horretatik, berekin ere badakar ikasleek zenbait trebetasun abian jartzea, batetik, ziurgabetasunari aurre egiteko, eta bestetik, ekimena eta pertseberantzia garatzeko, helburuak lortzeari eta erabakiak hartzeari begira.

Gainera, hizkuntza eta aldaera horiek ezagutzeak berekin dakar gizartearen aniztasun linguistikoa kritikoki balioestea, alderdi aberasgarri eta positibo modura, eta hartara egokitzea. Halaber, errazagoa izanen da beste hizkuntza batzuk hobeki eskuratu eta ikastea, baldin eta gailu eta tresna analogiko eta digitalak hautatu, konfiguratu eta erabiltzen badira eduki berriak eraikitzeke eta norberaren hizkuntza errepertorioan txertatzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: ELK2, STEM1, KD3, KPSII1.1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
5.1. Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak konparatzea eta argudiatzea, eta haien funtzionamenduaren gainean hausnartzea eta haien arteko harremanak ezartzea.	5.1. Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak konparatzea eta alderatzea, eta haien funtzionamenduaren gainean sistematikoki hausnartzea eta haien arteko harremanak ezartzea.
5.2. Euskaraz komunikatzeko eta ikasteko gaitasuna hobetzeko estrategiak eta ezagutzak modu sortzailean erabiltzea, beste partaide batzuen laguntzarekin eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin.	5.2. Euskaraz komunikatzeko eta ikasteko gaitasuna hobetzeko estrategiak eta ezagutzak modu sortzailean erabiltzea, beste partaide batzuen laguntzarekin edo laguntzarik gabe eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin.
5.3. Euskararen ikaskuntzako aurrerapenak eta zailtasunak erregistratu eta aztertzea; zailtasunak gainditzeko eta ongi ikasteko estrategiarik eraginkorrenak hautatzea; norberaren ikaskuntza, autoebaluazioa eta koebaluazioa planifikatzeko jarduerak egitea, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak; aurrerapen eta zailtasun horiek adierazi eta partekatzea.	5.3. Euskararen ikaskuntzako aurrerapenak eta zailtasunak erregistratu eta aztertzea; zailtasunak gainditzeko eta ongi ikasteko estrategiarik eraginkorrenak hautatzea; norberaren ikaskuntza, autoebaluazioa eta koebaluazioa planifikatzeko jarduerak egitea, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak; aurrerapen eta zailtasun horiek adierazi eta partekatzea.

6 GAITASUN BERARIAZKOA

Aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa kritikoki balioestea eta hari egokitzea euskaratik abiatuta, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak hausnartuz eta partekatuz, enpatiaz, errespetuz eta eraginkortasunez jokatzeko, eta kulturarteko egoeretan elkarrekiko errespetua sustatzeko.

6 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Kulturartekotasunak berekin dakar gizarteko aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa esperimintatzea, aztertzea, modu kritikoan balioestea eta hartatik onura jasotzea. Batxilergoan, besteekiko ulermena errazten duen kulturartekotasunak arreta espezifiko behar du, oinarriak ezartzen baititu ikasleek herriartasun arduratsu, errespetuzko eta konprometitua gauza dezaten eta

estereotipoek eta aurreiritziek distortsionatutako hautematerik gerta ez dadin eta, orobat, horietatik diskriminazio-mota batzuk sor ez daitezen. Aniztasuna kritikoki balioetsita eta aniztasunari egokituta, ikasleek enpatiaz, errespetuz eta arduraz jokatu ahalko dute kulturarteko egoeretan.

Aniztasunaren kontzientziak zenbait kultura erlazionatzeko aukera ematen die ikasleei. Gainera, kontzientzia horrek laguntzen du sentsibiltate artistiko eta kulturala garatzen, eta euskal kulturako pertsonekin harremanak izateko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna indartzen. Euskara ikastea gerta daitezkeen kulturarteko egoerek aukera ematen diete ikasleei esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berriak ezagutzeko eta desberdina denarekiko interesa erakusteko; beren ikuspegia eta kultura balioen sistema erlatibizatzen; eta edozein diskriminaziotan edo estereotipoen errefortzuan oinarritutako jarreraren ondorioak errefusatzeko eta ebaluatzen. Horren guztiaren helburua da kultura partekatu bat erraztea eta justifikatzea, eta jasangarritasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritarrak sortzea.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, ELK3, KPSII3.1, HK3, KKAK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
6.1. Egokiro, enpatiaz eta errespetuz jardutea kulturarteko egoeretan, loturak eraikiz hizkuntzen eta kulturen artean, baztertuz diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo guztiak, eta proposatuz komunikazioa zailtzen duten faktore sozio-kulturalak konpontzeko bideak.	6.1. Egokiro, enpatiaz eta errespetuz jardutea kulturarteko egoeretan, loturak eraikiz hizkuntzen eta kulturen artean, baztertuz eta ebaluatuz diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo guztiak, eta konponduz komunikazioa zailtzen duten faktore soziokulturalak.
6.2. Euskaraz hitz egiten den lurraldeetako hizkuntza, kultura eta arte aniztasuna kritikoki baloratzea, giza eskubideak kontuan hartuta, eta horretara egokitzea, kultura partekatuaren garapena eta jasangarritasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna bultzatuz.	6.2. Euskaraz hitz egiten den lurraldeetan, giza eskubideei dagokienez, aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa kritikoki balioestea, eta horretara egokitzea, kultura partekatu baten alde arituz eta hura justifikatuz, eta jasangarritasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitzen den herritartasuna bultzatuz.
6.3. Aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa defendatzeko eta balioesteko estrategiak aplikatzea, balio ekosozial eta demokratikoak aintzat hartuta, eta justizia, ekitate eta berdintasunaren printzipioak errespetatuta.	6.3. Aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa defendatu eta preziazteko estra- tegiak sistematikoki aplikatzea, balio ekosozial eta demokratikoak aintzat hartuta, eta justizia, ekitate eta berdintasunaren printzipioak errespetatuta.

2. OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Komunikazioa.

	1. MAILA	2. MAILA
A.1	Autokonfiantza, ekimena eta asertibotasuna. Autozuzenketarako eta autoe- baluaziorako estrategiak, euskararen ikaskuntza autonomoan aurrera egiteko bide modura.	Autokonfiantza, ekimena eta asertibotasuna. Autozuzenketarako eta autoe- baluaziorako estrategiak, euskararen ikaskuntza autonomoan aurrera egiteko bide modura.
A.2	Estrategiak ahozko testuen, idatzizko testuen eta	Estrategiak ahozko testuen, idatzizko testuen eta

	testu multimodalen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko.	testu multimodalen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko.
A.3	Eguneroko egoeretan bitartekotza jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.	Eguneroko egoeretan bitartekotza jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.
A.4	Komunikazioaren esparru eta testuingurura egokitutako komunikazio funtzioak: gertakariak eta gertaerak azaltzea; jarraibideak eta aholkuak ematea; iraganeko gertaera puntualak eta egunerokoak kontatzea, oraingo egoerak azaltzea, eta etorkizuneko gertakariak eta aurreikuspenak adieraztea epe laburrean, ertainean eta luzean; emozioak adieraztea; iritzia ematea; argudioak azaltzea; birformulatzea, besteen iritzia aurkeztea, laburpenak egitea.	Komunikazioaren esparru eta testuingurura egokitutako komunikazio funtzioak: gertakariak eta gertaerak azaltzea; jarraibideak eta aholkuak ematea; iraganeko gertaera puntualak eta egunerokoak kontatzea, oraingo egoerak azaltzea, eta etorkizuneko gertakariak eta aurreikuspenak adieraztea epe laburrean, ertainean eta luzean; emozioak adieraztea; iritzia ematea; argudioak azaltzea; birformulatzea, besteen iritzia aurkeztea, laburpenak egitea.
A.5	Ahozko testu, idatzizko testu eta testu multimodal erraz eta soilak, literarioak edo ez-literarioak, ulertzeko, ekoizteko eta batera ekoizteko ohikotasunez erabiltzen diren testuinguru eredu eta diskurtso generoak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; antolamendua eta egituraketa, generoaren eta testuaren funtzioaren arabera.	Ahozko testu, idatzizko testu eta testu multimodal erraz eta soilak, literarioak edo ez-literarioak, ulertzeko, ekoizteko eta batera ekoizteko ohikotasunez erabiltzen diren testuinguru-eredu eta diskurtso-generoak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; antolamendua eta egituraketa, generoaren eta testuaren funtzioaren arabera.
A.6	Hizkuntza unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren ezaugarrien adierazpena, kantitatea eta kualitatea, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora erlazioak, baieztapena, ezeztapena, galdera eta harridura, erlazio logikoak.	Hizkuntza unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren ezaugarrien adierazpena, kantitatea eta kualitatea, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora erlazioak, baieztapena, ezeztapena, galdera eta harridura, erlazio logikoak.
A.7	Ikasleentzat interesgarria den lexiko arrunta eta espezializatua. Arloak, hauek: denbora eta espazioa; egoerak, ekitaldiak eta gertaera; jarduerak, prozedurak eta prozesuak; erlazio pertsonalak, sozialak, akademikoak eta profesionalak; hezkuntza, lana eta ekintzailtza; hizkuntza eta kulturarteko komunikazioa; zientzia eta teknologia; historia eta kultura; lexikoa aberasteko estrategiak (eratorpena, familia lexikoak, polisemia, sinonimia, antonimia...).	Ikasleentzat interesgarria den lexiko arrunta eta espezializatua. Arloak, hauek: denbora eta espazioa; egoerak, ekitaldiak eta gertaera; jarduerak, prozedurak eta prozesuak; erlazio pertsonalak, sozialak, akademikoak eta profesionalak; hezkuntza, lana eta ekintzailtza; hizkuntza eta kulturarteko komunikazioa; zientzia eta teknologia; historia eta kultura; lexikoa aberasteko estrategiak (eratorpena, familia lexikoak, polisemia, sinonimia, antonimia...).
A.8	Soinu, azentu, erritmo eta intonazio patroiak, eta patro horiei lotutako esanahi eta komunikazio asmo orokorrak. Oinarrizko alfabeto fonetikoa.	Soinu, azentu, erritmo eta intonazio patroiak, eta patro horiei lotutako esanahi eta komunikazio asmo orokorrak. Oinarrizko alfabeto fonetikoa.
A.9	Ortografia konbentzioak, eta formatuei, patroiei	Ortografia konbentzioak, eta formatuei, patroiei

	eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.	eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.
A.10	Elkarrizketako konbentzioak eta estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta bukatzeko, hitza hartu eta emateko, azalpenak eskatu eta emateko, birformulatzeko, alderatzeko, kontrastatzeko, laburtzeko eta parafraseatzeko, lankidetzan aritzeko, esanahiak negoziatzeko, ironia hautemateko, etab.	Elkarrizketako konbentzioak eta estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta bukatzeko, hitza hartu eta emateko, azalpenak eskatu eta emateko, birformulatzeko, alderatzeko, kontrastatzeko, laburtzeko eta parafraseatzeko, lankidetzan aritzeko, esanahiak negoziatzeko, ironia hautemateko, etab.
A.11	Ikasteko baliabideak, eta informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, eta eduki-edizioa: hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak, mediatekak, sareko etiketak, baliabide digital eta informatikoak eta abar.	Ikasteko baliabideak, eta informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, eta eduki-edizioa: hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak, mediatekak, sareko etiketak, baliabide digital eta informatikoak eta abar.
A.12	Jabetza intelektuala eta egile eskubideak errespetatzea kontsultatutako iturriei eta erabilitako edukiei dagokienez: datu bibliografikoen tratamendurako tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak.	Jabetza intelektuala eta egile eskubideak errespetatzea kontsultatutako iturriei eta erabilitako edukiei dagokienez: datu bibliografikoen tratamendurako tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak.
A.13	Ohiko erabilerako oinarritzko tresna analogiko eta digitalak, ahozkoaren, idatziaren eta multimodalaren ulermenerako, produkzioarako eta koprodukzioarako; eta hezkuntza arloko interakzio, lankidetzak eta elkarlanerako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, elkarlanerako tresna digitalak...), ikasteko, komunikatzeko eta euskara hiztun edo ikasleekin proiektuak garatzeko direnak.	Ohiko erabilerako oinarritzko tresna analogiko eta digitalak, ahozkoaren, idatziaren eta multimodalaren ulermenerako, produkzioarako eta koprodukzioarako; eta hezkuntza arloko interakzio, lankidetzak eta elkarlanerako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, elkarlanerako tresna digitalak...), ikasteko, komunikatzeko eta euskara hiztun edo ikasleekin proiektuak garatzeko direnak.

B. Eleaniztasuna.

	1. MAILA	2. MAILA
B.1	Estrategiak eta teknikak izatea behar komunikatibo baten aitzinean eraginkortasunez, autonomia-maila handi batez, egokitasunez eta zuzentasunez erantzuteko, nahiz eta muga batzuk egon ikasleak euskaran eta bere beste hizkuntzetan daukan konpetentzia-mailaren ondorioz.	Estrategiak eta teknikak izatea behar komunikatibo baten aitzinean eraginkortasunez, autonomia-maila handi batez, egokitasunez eta zuzentasunez erantzuteko, nahiz eta muga batzuk egon ikasleak euskaran eta bere beste hizkuntzetan daukan konpetentzia-mailaren ondorioz.
B.2	Estrategiak izatea hizkuntza unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak eta abar) identifikatu, antolatu, barneratu, berreskuratu eta erabiltzeko, norberaren hizkuntza errepertorioko hizkuntzak eta barietateak alderatzetik abiatuta.	Estrategiak izatea hizkuntza unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak eta abar) identifikatu, antolatu, barneratu, berreskuratu eta erabiltzeko, norberaren hizkuntza errepertorioko hizkuntzak eta barietateak alderatzetik abiatuta.
B.3	Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta	Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta

	autozuzenketarako estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak.	autozuzenketarako estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak.
B.4	Esapideak eta lexiko espezifikoak, erabiltzen direnak komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazioko nahiz ikaskuntzako tresnei buruzko ideiak trukatzeko (metahizkuntza).	Esapideak eta lexiko espezifikoak, erabiltzen direnak komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazioko nahiz ikaskuntzako tresnei buruzko ideiak trukatzeko (metahizkuntza).
B.5	Hizkuntzen arteko oinarritzko konparazio sistematikoa, euskararen eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta.	Hizkuntzen arteko oinarritzko konparazio sistematikoa, euskararen eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta.

C. Kulturartekotasuna.

	1. MAILA	2. MAILA
C.1	Euskara komunikazio eta ulermen bitarteko, beste kultura baterako sarbidea errazten duen eta parte-hartze sozialerako eta aberastasun pertsonalerako tresna gisa.	Euskara komunikazio eta ulermen bitarteko, beste kultura baterako sarbidea errazten duen eta parte-hartze sozialerako eta aberastasun pertsonalerako tresna gisa.
C.2	Interesa eta ekimena izatea, euskaraz hitz egiten edo ikasten dutenekin komunikazio harremanak izateko, bitarteko desberdinak erabilita, eta euskara mintzatzen den herrialdeetako informazio kulturalak ezagutzeko.	Interesa eta ekimena izatea, euskaraz hitz egiten edo ikasten dutenekin komunikazio harremanak izateko, bitarteko desberdinak erabilita, eta euskara mintzatzen den herrialdeetako informazio kulturalak ezagutzeko.
C.3	Gizarte konbentzioei, kortesia arauak eta erregistroei buruzko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak; instituzioak, ohiturak eta errituak; balioak, arauak, sinesmenak eta jarrerak; estereotipoak eta tabuak; hitzik gabeko hizkuntza; historia, kultura eta komunitateak eta pertsonen arteko harremanak.	Gizarte konbentzioei, kortesia arauak eta erregistroei buruzko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak; instituzioak, ohiturak eta errituak; balioak, arauak, sinesmenak eta jarrerak; estereotipoak eta tabuak; hitzik gabeko hizkuntza; historia, kultura eta komunitateak eta pertsonen arteko harremanak.
C.4	Estrategiak izatea hizkuntza, kultura eta arte aniztasuna ulertu eta balioesteko, balio ekosozial eta demokratikoak aintzat hartuta.	Estrategiak izatea hizkuntza, kultura eta arte aniztasuna ulertu eta balioesteko, balio ekosozial eta demokratikoak aintzat hartuta.
C.5	Estrategiak, hitzeko hizkuntzan eta hitzekoa ez den hizkuntzan egiten diren erabilera diskriminatzaileak hautemateko, errefusatzeko eta haiei aurre egiteko.	Estrategiak, hitzeko hizkuntzan eta hitzekoa ez den hizkuntzan egiten diren erabilera diskriminatzaileak prebenitzeko, hautemateko, errefusatzeko eta haiei aurre egiteko.